

INFORMAZIO-OHARRA

Osasun Sailak balizko lotura epidemiologiko bat identifikatu du azken egunetan PCR positiboa izan duten eta haien artean ez dutela harremanik izan adierazi duten pertsonen artean. Lotura hori **Tolosako Antonio Lekuona kaleko Elorri tabernan** egon daiteke.

Horregatik, Zaintza eta Kontrol Sareak, prebentzio gisa, **uztailaren 10etik (ostirala) uztailaren 14ra bitartean** ostalaritza-lokal horretan egon diren guztiekin jarri nahi du harremanetan.

Guztiei eskatzen zaie dagokien osasun-zentroarekin harremanetan jartzeko, baldin eta Tolosaldekoak badira:

- **Alegiako Osasun-Zentroa (tel.: 943 65 32 12)**
- **Andoingo Osasun-Zentroa (tel.: 943 00 65 41)**
- **Ibarrako Osasun-Zentroa (tel.: 943 67 24 11)**
- **Tolosako Osasun-Zentroa (tel.: 943 00 68 00)**
- **Villabonako Osasun-Zentroa (tel.: 943 00 69 70)**

Bertan PCR proba bat egiteko aurretiko hitzordua emango zaie **bihar goizeko 09:00etatik aurrera**. Proba horiek 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara bitartean egingo dira, **Alondegiz plazako Beotibar frontoian. Uztailaren 10etik (ostirala) uztailaren 14ra bitartean** Elorri tabernan egon diren beste herri batzuetako pertsonak **Osasun Aholkuaren telefonora** deitu behar dute (**900 20 30 50**), edo beren osasun-zentroarekin harremanetan jarri.

Osakidetza eta Osasun Saileko profesionalak beren lana normaltasunez egin ahal izan dezaten, bihar ez zaie komunikabieei erantzungo.

GETARIA

Osasun Sailak hainbat pertsona identifikatu ditu, azken egunetan PCR positiboa izan dutenak, eta haien artean **Getariako Kale Nagusiko Dona Doni izoki dendarekin** zerikusia izan dezakeen lotura posible bat besterik ez dutenak.

Horregatik, Zaintza eta Kontrol Sareak, prebentzio gisa, **uztailaren 9tik (osteguna) uztailaren 13ra bitartean** ostalaritza-lokal horretan egon diren guztiekin jarri nahi du harremanetan.

Guztiei eskatzen zaie dagokien osasun-zentroarekin harremanetan jartzeko, baldin eta Urola Kosta eskualdekoak badira:

- **Getariako osasun-zentroa (tel.: 943 14 06 53)**
- **Zumaiako osasun-zentroa (tel.: 943 00 64 90)**
- **Zarauzko osasun-zentroa (tel.: 943 00 79 99)**

Bertan PCR proba bat egiteko aurretiko hitzordua emango zaie **bihar goizeko 09:00etatik aurrera**. Proba horiek 09:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:00etara bitartean egingo dira, **Getariako Sahatsaga kaleko udal kiroldegiaren barrualdean. Uztailaren 9tik (osteguna) uztailaren 13ra (larunbata) bitartean** Dona Doni izoki dendan egon diren beste herri batzuetako pertsonak **Osasun Aholkuaren telefonora** deitu behar dute (**900 20 30 50**), edo beren osasun-zentroarekin harremanetan jarri.

Era berean, Osasun Sailak herritarrei gogorarazi nahi die ezagunak diren prebentzio-neurriak hartu behar dituztela, eta, COVIDarekin bateragarriak diren sintomak izanez gero (**sukarra, eztula edo arnasa hartzeko zailtasuna**), etxean isolatu eta beren osasun-zentrorra deitu behar dutela. Halaber, lasaitasunezko mezu bat zabaldu nahi du, eta azpimarratu nahi du **horrelako neurriak prebentziozkoak bakarrik** direla, transmisio komunitario bat ahalik

eta lasterren detektatu eta kutsatze gehiago saihesteko helburuarekin hartzen direnak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailak 15